

“Atzo eta Gaur” liburuak Arabako landa eremuetako herriguneetako saltoki txikien historia berreskuratu du

Argitalpenak XIX. mendetik gaur arteko informazioa, pasadizoak eta argazkiak bildu ditu

Cristina González: “Landa eremuetako dendak ezinbestekoak dira oraindik gure herrietako bizitzarako”

Gasteiz, 2019ko otsailaren 8a.- “Atzo eta Gaur” liburuak Arabako landa eremuetako herriguneetako saltoki txikien historia berreskuratzen du, XIX. mendetik gaur arteko argitaragabeko informazioa, pasadizoak eta argazkiak bilduz. Ikerketa lan honen bigarren zatiak Arabako Errioxako, Mendialdeko, Lautadako eta Gorbeialdeko hainbat herritako merkataritza bizitza bizia berreskuratu du.

Arabako Kontzejuen Elkarteak (AKE) argitaratu eta editatu du argitalpena, eta Arabako Foru Aldundiaren laguntza izan du. Arabako herrietako herritarrek emandako lekukotza eta material grafikoetan oinarritzen da.

Karmentxu Intxaurreaga soziologoak egin du antropologia eta gizarte ikerketa hau informazioa eta lekukotzak biltzeko, Iñaki Jaltzok eta Haizea Etxeberriak lagunduta. Landa lan hau osatzeko, EUSTAT Euskal Estatistika Institutuaren eta INE Estatuko Estatistika Institutuaren datu baseetatik lortutako dokumentazioa baliatu da.

Cristina González Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko diputatuak, Joseba Andoni Terreros AKEko lehendakariak eta Karmentxu Intxaurreaga soziologoak prentsaurrekoan aurkeztu dute gaur argitalpenaren bigarren zatia; hain zuzen ere, argitalpenaren lehengo zatiak bezala, duela hainbat urte atek itxi zituzten establezimenduen historia eta oraingo eta etorkizuneko proiektuen kontakizuna konbinatzen dituen zatia.

Aurkezpenean, José Antonio Ganuza ere izan da, lan honen protagonistetako bat eta Araban dagoen Orbisoko azkeneko merkataria.

“Arabako landa eremuetako dendak funtsezkoak izan ziren iraganean, eta oraindik ere funtsezkoak dira, aspalditik jendez husten ari diren herrien orainerako eta etorkizunerako. Saltoki horiekin ateratzen dute familia askok bizimodua, jendea herrian gera dadin laguntzen dute, eta oinarrizko zerbitzu bat ematen diete bizitzaile eta bisitariei”, adierazi du Cristina Gonzalezek.

Belaunaldiz belaunaldi

“Atzo eta Gaur” argitalpenak ezagutzera ematen du zeinen funtsezkoak izan ziren saltoki txikiak eta arlo bateko eta besteko profesionalak Arabako herriek XX. mendean izan zuten gizarte eta ekonomia garapenean, eta, horretarako, denda, taberna, ostatu, edaritegi, jangai denda eta burdindegien hainbat kasu azaltzen ditu, hainbat herritakoak, hala nola Orbiso, Santikurutze Kanpezu, Bilar, Aramaio, Deredia, Maeztu edo Urizaharra.

Landa eremuetako profesionaleri buruzko informazioa ere jasotzen du, zeinak azken bi mendeetan Arabako landa eremuetan zerbitzu ematen jardun baitira, hala nola jostunak, errotariak, errementariak, emaginak, okinak eta abar. Informazio horrekin batera, garai hartako hainbat argazki dakartza, hainbat herri eta saltokitakoak, eta pasadizo sorta jakingarri bat.

Liburua iraganaz ari da, baina batez ere azpimarratzen du zein garrantzitsua den merkataritza txikia Arabako herrien oraindirako eta etorkizunerako. Hauexei buruzko kapituluak dauzka: Santikurutze Kanpezuko Martínez anaien harategiaren historia, zeina XIX. mendean jarri baitzen martxan eta oraindik irekita baitago; Eguzkilore denda, hura ere Kanpezukoa, eta Ignacio Susoren janari denda, zeinak atek zabalik baitauzka 1915etik Maeztun.

Azkeneko orrialdeak etorkizuneko proiektu bati buruzkoak dira: janari denda bat irekitzea Urizaharrean.

Karmentxu Intxaurreaga soziologoak eta Joseba Andoni Terreros AKEko lehendakariak Arabako eskualdeetako herri eta kontzejuetako auzokideen, iraganean denda txiki horien ardura zuten pertsonen edo haien zuzeneko



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa



ondorengoan eta egun taberna edo denda horien ardura izaten jarraitzen dutenen laguntza eskertu dute. “Haiek gabe argitalpen hau ezin izango zitekeen egin”, esan dute.